

ERABAKIA, 2019ko URTARRILAREN 11koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2018ko AZAROAREN 12ko ERABAKIAN AURKITUTAKO OKERRAK ZUZENTZEKO DENA. ERABAKI HORREN BIDEZ EZARRI ZEN 2018-2019 IKASTURTEARI DAGOZKION UNIBERTSITATEKO TITULAZIOEN MATRIKULETARAKO LAGUNTZAK UPV/EHUko LANGILEEK ESKATZEKO ETA LAGUNTZA HORIEK ESLEITZEKO PROZEDURA

UPV/EHUko gerentearen 2018ko azaroaren 12ko Erabakian oker bat aurkitu denez, zuzentzeari ekin zaio beherago adierazi bezala. Erabaki horren bidez ezarri zen 2018-2019 ikasturteari dagozkion unibertsitateko titulazioen matrikuletarako laguntzak UPV/EHUko langileek eskatzeko eta laguntza horiek esleitzeko prozedura.

Hau dioen lekuan:

5.2. Eskariak aurkezteko tokia

Matrikula UPV/EHUko ikastegiren batean egin bada, laguntzarako eskaria ikastegiko idazkaritzan aurkeztu beharko da, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan zehaztutako beste edozein bide erabilita. Eskaria hartzerakoan, idazkaritzako arduradunak erregistratu egingo du eskaria, eskarian bertan jasota gera dadin, argi eta garbi, zein egunetan aurkeztu den.

Beste hau esan behar du:

5.2. Eskariak aurkezteko tokia

UPV/EHUko ikastegietako matrikuletarako laguntza eskaerak matrikula egin den ikastegiko idazkaritzari zuzenduta aurkeztuko dira UPV/EHUko erregistro orokorretako batean edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan zehaztutako beste edozein bide erabilita.

Zuzenketa honen ondorioz, eskariak aurkezteko epea 2019ko otsailaren 15 arte luzatuko da.

Leioan, 2019ko urtarrilaren 11n


Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 59/2019 Erabaki Zk